

# Esan ozenki: intsumisioa!


Negu Gorriak taldeak kontzertua eskaini zuen atzo Donostiako Entzutegi parean

**M**ikel Kazalis Anestesia Meta Negu Gorriak taldeetako kidea soldaduzkari uko egiteagatik epaiketara deitua zegoen atzo. Kazalis ez zen epaiketara aurkeztu «erabiltzen ari diren errepresio selektiboa salatzen». Negu Gorriak taldeak kontzertua eskaini zuen Donostiako Entzutegi Probintzialaren parean aparkatu zuten kamioi baten gainean.

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Intsumisioen kontra Euskal Herrian egiten ari diren epaiketa masiboen artean, Mikel Kazalis Anestesia eta Negu Gorriak rock taldeetako kideari egokitu zitzaion txanda atzo. Hamabiatarako zuen zita atzo Donostiako Entzutegi Probintzialan. Kazalis ez zen epailearen aurrera agertu, «epaileari erakusteko ez gaudela farsa hori jarraitzeko prest.

**KONTZERTUA AUZITEGI PAREAN** Errepresio selektiboa salatzen, batzuk atxilotu, besteak libre utzi... arazoari irtenbidea emateko benetako planteamendurik egin gabe». Atzoko protesta ekintza «epaileek kalean zer gertatzen zen jakin dezaten» egin zuten Mikel Kazalis eta bere lagunek. Ildo beretik momentu honetan kartzelan dauden intsumisoei «kaleko jendeak zer nahi duen ikus dezaten eta bide beretik jarrai dezaten» eskatu zien Kazali-



Intsumisioaren aldeko kontzertua eskeini zuen Negu Gorriak taldeak.

GILLENEA

sek, «etsi gabe».

Intsumisioen kontrako epaiketetan gertatu ohi bezala, jende ugari bildu zen atzo Donostiako Entzutegi Probintzialaren parean. Txalaparta eta intsumisioaren kontrako oihuak nabarmendu ziren.

Hamabiak puntuan zirenean, kamioi txiki bat eta furgoneta bat geratu ziren Entzutegi parean. Lehenetik Fermin Muguruza jaitsi zen teknikoekin batera. Hauek kamioiari gaineko estalkia kentzen zioten bitartean, furgonetatik Mikel Kazalis (bajoa eskutetan zuela) Iñigo Muguruza (gi-

terra) eta Kaki Arkarazo (kitarra) jaitsi ziren. Denak kamioira igo eta «Epaile jauna: intsumisioa» oihuarekin hasi zuten kontzertua.

Trafikoa etenda, dantza nagusitu zen Entzutegi parean. Mikel Kazalis, kartzelan dauden intsumisio guztiak eta taldeko bateria jolea den Mikel Abrego gogoratu zituen besteak beste Fermin Muguruza. Bost kanta abestu ostean «Hator hator» kantarekin amaitu zuen talde irundarrak intsumisioaren aldeko kontzertua.

Fermin Muguruzaren hitzetan «gure jarrera intsumisioa erakutsi

nahi izan dugu kontzertu honekin». Beste «kolpe» bat ematea izan zen taldearen helburua «gauzak ozenki esan behar baitira». Ekintza istilurik gabe amaitu izana nabarmendu zuen Muguruzak, «horrek esan nahi du konturatu direla ekintza kulturala zuzena izan dela eta ez dela ezer gertatu». Ekintza berri hau intsumisioaren aldeko borrokan beste aurrerapauso bat izango dela espero du Muguruzak.

Kontzertuaren ostean, Entzutegi parean bildutako ehundaka gaztek manifestazioa egin zuten Gobernu Militarerraino.

## Plantoa egin ostean itxialdia hasi dute bost intsumisok Lizarrako udaletxean

LIZARRA

Hirugarren graduari uko egin eta bart ez ziren Iruñeko kartzelara agertu Nafarroako bost intsumisio. Honen ordez, Lizarrako udaletxean itxialdia hasi dute, beste hamabost lagunekin batera. Honekin batera, bost lagun autoinkulpatu dira, intsumisioek igandeko gaua beren etxeetan eman dutela esanez. Ekimenaren aurkezpena Lizarrako Koartelaren aurrealdean egin zuten, orain dela gutxi desalojatua, gizartearen desmilitarizazioa aldarrikatzeko asmoz.

David Ardanaz de Carlos Agoizkoa, Juan Martin Goñi Beltza Etxarri-Aranazkoa, Patxi Billares Loigorri, Alfredo Liras eta Iñigo Rodriguez Txabarri Iruñeko intsumisioak dira hirugarren graduari uko egin diotenak. Autoinkulpatuak, berriz,

✓ Intsumisio hauentzat hirugarren gradua ez da irtenbidea eta beste askok egin duten moduan, plantoa egitea erabaki dute.

Patxi Erdozain Herri Batasunako parlamentari ohia, Jose Mari Esparza idazlea, Gotzon Urrusola Altsasuko Ikastolako irakaslea, Karmele Legarra sindikalista eta Javier Barbarin Lizarrako udaletxeko zinegotzia dira.

Plantoaren berri ematerakoan Lizarrako Koartela aukeratu dute intsumisio hauek, bertakoak ez izan arren, «gizartearen desmilitarizazioaren mezua bultzatu nahi dugulako, eta hau egiteko

modu egokia iruditzen zaigu koartelen desagerpena, ondoren lokal horiek helburu sozialetarako erabiltzeko». Gauzak horrela, kalean egin zuten prentsaurrekoa eta bertan ehun lagun inguru bildu ziren, horien artean Lizarrako udaletxeko HB, EA eta Candidatura Unitaria taldeetako zinegotziak zeudelarik.

Ondoren, Udaletxera joan eta itxialdia hasi zuten, hamabost lagunekin batera. Jende gehiago sartzan saiatu bazen ere, bertan zeuden udaltzainek ez zieten sartzan utzi eta aipatutako hogeitau hauek daude barruan. Intsumisio hauentzat hirugarren gradua ez da irtenbidea eta beste askok egin duten moduan, plantoa egitea erabaki dute. Egoera horretan berrogei intsumisio inguru daude Iruñeko kartzelan, hirugarren graduari uko egin eta bigarren gradura pasatu dituztenak.

### Lehendakariak ikastolekiko jarrera azaltzeko eskatu du EAK

GASTEIZ

Jose Antonio Ardanza lehendakariak Gobernuak ikastolekiko duen jarrera azaltzeko eskatu du Eusko Alkartasunak Inaxio Oliveriren bidez. Jose Antonio Ardanza lehendakariak eta Fernando Buesa lehendakariordeak azken egunetan egindako adierazpenak «kontraesanean» daude EAREN ustez. «Gaiak duen garrantzia kontuan izanik lehendakariaren agerraldia eskatzen dugu Hezkuntza eta Kultura Batzordean». Ardanza agerraldiak «lehenbailehen» izan behar du Inaxio Oliveriren ustez.

### Perez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren presidente berria

IRUÑEA

Carlos Perez Anadon zaragozarra da atzotik Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren presidentea, Ministro Kontseiluak joan den ostiralean kargurako izendatu baitzuen. Antonio Aragon nafarrak karguan hiru urte egon ete gero, orain dela bi hilabete dimititu zuen, ordezko lanak Angel Soltxagak egin dituelarik. Carlos Perez Anadon Zaragozan jaio zen orain dela 37 urte eta kargu hau hartu baino lehen Aragoiko Gobernu ordezkarria eta Barne Politikaren zuzendari nagusia izan da.

### Alde Zaharreko istiluak Parlamentuan aztertuko dira

IRUÑEA

Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua alderdi politikoek eskatuta, heldu den ostegunean, eguerdiko 12.00etan, Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordea Iruñeko Alde Zaharrean gertatutako istiluei buruz hitz egiteko bilduko da. Bertan, Iruñeko Auzo Elkarteko kideak eta Juantxo Molina ezkerreko begian zauritu zuten mutilaren familiako ordezkariak izango dira, Gaztetxeko lagunak kanporatzerakoan izandako istilu gogorak argitzeko asmoz.

AFG

ACADEMIA ESTUDIOS GENERALES

UDAKO KURTSOA ERREKUPERAZIOAK

- O.H.O.: 7° - 8°
- B.B.B. ; U.B.I.
- SELEKTIBITEA (Zientziak, Letrak)

- ✓ INFORMATIKA IKASTAROKAK
- ✓ ESKOLA GRADUATUA (OFIZIALA)

URBIETA, 44 - 1° DONOSTIA  
Tel: 45 19 52 / 46 69 08